

Altza

Ika-mikak komunitate plangintzaren inguruan


Joan den astelehenean, Udalak Altzako bizi kalitatea hobetzeko Garapen Komunitarioaren Plangintza aurkeztu zuen Casares kultur etxean. Altzako zenbait taldek desadostasunak mahaigaineratu zituzten.

Sara Soria

Auzoetako zinegotzi Enrique Ramosek eta proiektua garatuko duten teknikari Marimar Jimenezek, Arantxa Ferrersek eta Eli Arrietak plangintzaren nondik norakoak aurkeztu zituzten. Garapen Komunitarioaren Plangintzak, herritarren partaidetza bultzatuz, Altzako bizi kalitatea hobetzea du helburu.

Zenbait kritika

Plana Arri Berri, Arrizar, Buenavista, Kasko, Eskalantegi, Molinao, Herrera, Larratxo, Los Boscos, Roteta eta Santa Barbaran gauzatuko dela aditzera eman eta berehala kritika batzuk entzun ziren. Esaterako, Gure Lizarpe Amets elkartearen ordezkariak esan zuenez, "Altzaz gutxiesten da. Altzaz herria zerranda hori baino askoz gehiago da". Teknikariak, berriz, plana etorkizune-



Enrique Ramos zinegotziak eta hiru teknikariak aurkeztu zuten plana.

an beste zenbait tokitara zabaltzea ez zuten erabat baztertu.

Bestalde, azken lau urteetan plangintza sustatzen arituen Auzolanek gogor kritikatu zuen Udalaren jokaera. Elkarreko kide Alvaro Fernandezek esan zuenez, "Auzolanek lau urte daramatza plana bultzatzen eta Udalak oztopoak jarri

dizkigu. Orain, berriz, plana aurkeztu du, Auzolan aintzat hartu gabe. Udalak gutxietsi eta baztertu egin gaitu". Auzoetako zinegotzi Enrique Ramosek erantzun zion kritikari. "Udalak ez du egitasmoa bere egin nahi. Poliki-poliki egitasmoaren gidaritza Altzako gizarte eragileen esku utzi nahi dugu", adierazi zuen.

Mendi astea Casaresen

Abendu hasieran, Herrero Mendi Zelaia eta Donostia Kulturak antolatuta, X. Mendi Astea ospatuko da Casares kultur etxean. Hilaren 9tik 13a bitartean, zenbait hizlari eskainiko dira, diapositibez lagunduta. 20100etan, Hona hemen emandakidok zirenta:

Eguna	Hizlaria	Hizlaria
Astelehena 9	Andra Zena	Marcos Alberdi
Astearte 10	Chemonix Zena eta Eskalantegi	Mikel Zibanda
Asteazkena 12	Koizka mendia eta Casares	Imanol Lazarte eta Antea Rueda
Ostirala 13	"Alamaniaik Koradara, oin mallak eskaldara eta..."	Ensko eta Iker Pou

Puntu kardinalak gaztelaniaz

Berrik zabalduko Larraboko parkeko seinale gehienak elebitan daude. Dena dela, auzotar batek zoruak dauden puntu kardinalak gaztelania hutsez daudela ohartarazi gaitu. Puntu kardinalak ez al dute bada, euskarazko izenik?



euskararen donostia

pa i t r o n d i t u d a



Donostia Uste
Auzolaneko 501. batzarria

Musika

- Benito Lerbundi
Azaroaren 29an, 20.00etan
Kursaal Auditorioan
- Fermin Muguruza: Kurak
-gailu, Sorkun
Azaroaren 30ean, 19.00etan
Auzoetako belodromoan

Antzerkia

- Ekaitz txorien eskua
Manuel Rivasen testua
Tantaka teatroa
Abenduaren 1ean, 20.00etan
- A. e. l. e. u
Deabru beltzak
Azaroaren 30ean, 18.00etan
Egia Kultur Etxean
- Haur paraderoiak!
Abenduaren 12an, 19.30etan
Egia Kultur Etxean
- Kurku atonaren erlojuak
Txotxongilo taldea
Abenduaren 14an, 18.00etan
Lugaritz Kultur Etxean

Zinea

- Chihiroren bidaiak
Azaroaren 30ean, 17.00etan
Lugaritz Kultur Etxean